

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 3894

*EBAZPENA, 2022ko uztailaren 23koa, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburordearena. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko Hezkuntzako sailburuaren 2018ko otsailaren 26ko eta 2020ko otsailaren 18ko Aginduen bidez deitutako hautaketa-prozeduretan hautatutako izangaien praktikaldia arautzen da.*

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko uztailaren 22ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetako praktiketako funtzionario izendatu dira; horiek Hezkuntzako sailburuaren 2018ko otsailaren 26ko eta 2020ko otsailaren 18ko Aginduen bidez deitutako hautaketa-prozeduretan hautatutako izangaiak dira.

Agindu horren bidez, praktiketako funtzionario izendatzen dira Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran hautatutako izangaiak. Hala ere, sailburu beraren 2018ko otsailaren 26ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran hautatutako izangai bat ere praktiketako funtzionario izendatu zen, erabaki judiziala betearaztearen ondorioz.

Aipatutako deialdiekin bat etorritz, praktikak arautu eta Kalifikazio Batzordeen osaera eta esku-menak zehaztu behar dira.

Ondorioz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetako funtzionario izendatutako izangaien praktikak batzordeak kalifikatuko dituzte. Hona batzorde horien osaera eta jardute-prozedura:

1.1.– Kalifikazio Batzorde hauek eratuko dira eta kide hauek osatuko dituzte:

Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa.

EAEen batzorde bakar bat eratuko da, kide hauekin:

– Hezkuntzako ikuskari bat Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariak izendatuko du eta Batzordeburu gisa jardungo du.

– Bigarren Hezkuntzako institutu bateko zuzendari bat; Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariak izendatutako kide modura jardungo du.

– Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko karrerako lau funtzionario; gutxienez ere, hamar urteko esperientzia izango dute kidegoan eta Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariak izendatutako kide modura jardungo dute.

Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoa.

EAEen Batzorde bakar bat eratuko da, kide hauekin:

– Hezkuntzako ikuskatzaile bat Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariak izendatuko du eta Batzordeburu gisa jardungo du.

– Lanbide Heziketako ikastetxe publiko bateko zuzendari bat; Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariak izendatutako kide modura jardungo du.

– Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoan kidegoko karrerako lau funtzionario; gutxienez ere, hamar urteko esperientzia izango dute kidegoan eta Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariak izendatutako kide modura jardungo dute.

1.2.– Kalifikazio Batzordeen osaera Hezkuntza Sailaren web orrian argitaratuko da: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/> eta <http://www.irakasle.eus>

1.3.– Kalifikazio Batzordeko kideei aplikatuko zaie Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan abstentzioari eta errekusazioari buruz ezarritakoa.

1.4.– Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoen kasuan, izangaiak praktikak egiten dituen ikastetxeko zuzendaritzak proposatuta, kalifikazio-batzordeek izendatutako irakasle arituen tutoretzapean eramango da aurrera praktikaldia. Irakasle horiek ikastetxean destinoa duten karrerako funtzionarioen artean aukeratuko dira eta izangaiak praktikak egiten dituen espezialitate berekoak izango dira; ahal izanez gero, Katedratikoen kidegoak izango dira edo, bestela, izangaiak praktikak egiten dituen espezialitateri dagokion Didaktika Departamentu-burutzak, betiere karrerako funtzionarioak badira.

Espezialitateko Katedratiko edo Departamentuko bururik ez balego, tutorizatu behar den praktiketako funtzionarioaren kidego eta espezialitateko karrerako funtzionarioak tutore izendatuko dira.

Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoan sartzeko izangaien kasuan, izangaiaren espezialitateko karrerako funtzionariorik ez balego, irakasle-tutore hori ez da izango praktiketako funtzionarioaren espezialitate berekoa, baina moduluak eman beharko ditu hark praktikak egiten dituen heziketa-zikloan edo, bestela, praktiketako irakasleak heziketa-zikloa ematen duen lanbide-familiako beste edozein heziketa-ziklotan.

1.5.– Aurreko atalean adierazitako ezaugarriak betetzen dituen irakaslerik ez badago, ikastetxeko Zuzendaritzak ikastetxeko Ikasketa Burutzari proposatuko dio tutoretza-lanak egiteko, betiere ikasketaburu hori karrerako funtzionarioa bada. Hori ezinezkoa bada, karrerako beste edozein irakasle funtzionario proposatuko du, eta Kalifikazio Batzordeari proposamen hori justifikatuko dio.

1.6.– Praktikaldian esleitutako tutoretza aurrera eramatea eragozten duen gorabeheraren bat gertatuko balitz, ikastetxeko zuzendaritzak beste tutore bat proposatuko du, azaldutako irizpideen arabera, eta Kalifikazio Batzordeak izendatuko du.

1.7.– Irakasle-tutoreak ondorengo gaiei buruzko aholkularitza eta informazioa emango dizkie praktiketako funtzionarioei praktikaldian zehar:

- Irakasle-praktikaren planifikazioa.
- Irakasle-praktikaren garapena.
- Ebaluatzeko prozedurak eta irizpideak.

- Koordinazio didaktikoa.
- Tutoretza- eta orientabide-planak.
- Hezkuntza-premia espezifikoak eta aniztasunari arreta ematea.
- Familiekiko harremanak adingabeen kasuetan.

Gainera, irakasle tutoreari aukera emango zaio, gutxienez hilean behin, praktikaldian dagoen funtzionarioaren ikasgela bisitatzeko, eta praktiketako funtzionarioa irakasle tutorearen gelara joatea sustatuko da, prestakuntza-behaketa edo irakaskuntza-praktikaren eredia egiteko, horri buruzko hausnarketa sustatzeko eta hobetzeko orientabideak proposatzeko. Horretarako, hezkuntza-ikuskaritzak prozesuaren jarraipena egiteko tresna bat emango die tutoretza-lanak egiten dituzten irakasleei.

Praktikaldia amaitzean, tutoretza-lanak egiten dituzten irakasleek txosten bat egingo dute, izangaiak egindako lanak merezi duen balorazioa adierazteko. Ebazpen honen II. eranskinean azaltzen diren alderdiak baloratuko dira txosten horretan.

1.8.– Zuzendaritza-taldeak ondorengo gaiei buruzko aholkularitza eta informazioa emango dizkie praktiketako funtzionariei praktikaldian zehar:

- Ikastetxearen hezkuntza-proiektua eta curriculum-proiektua.
- Ikastetxearen urteko plana eta urteko memoria.
- AJA (ROF) eta elkarbizitza-plana.
- Ikastetxeko gobernu- eta koordinazio didaktikoko organoen funtzionamendua.
- Hezkuntza erkidegoaren parte-hartzea.

Praktikaldia amaitzean, ikastetxeko zuzendariak txosten bat egingo du izangaiaren lanak merezi duen balorazioa adierazteko. Ebazpen honen I. eranskinean azaltzen diren alderdiak baloratuko dira txosten horretan.

2.– Izangaiak praktikak egiten dituen ikastetxeko erreferentziako ikuskariak koordinatuko du praktiketako funtzionario-irakasleak ebaluatzeko prozesua, ezarritako prozeduraren arabera.

Ikastetxeko zuzendaritzaren eta irakasle-tutoretzaren txostenak jasoko ditu, eta balorazio-txosten bat emango du, izangaiak egindako irakasle-lanari buruz. Horretarako aipatutako txostenak, bai eta I eta II Eranskinetan adierazitako adierazleak ere kontutan izango ditu.

Aldez aurretik, eta ezarritako prozeduraren arabera, ikastetxeko erreferentziazko ikuskatzaileak izangaiaren praktikaldiari buruzko beharrezko informazio guztia jasoko du, bai eta egindako tutoretza-prozesuari buruzkoa ere, eta praktiketako funtzionarioaren irakaskuntza-jardueraren saioen baten garapena behatu ahal izango du.

Ikastetxeko erreferentziako ikuskariak Kalifikazio Batzordeari bidaliko dizkio txosten guztiak.

Gainera Batzordeak izangaiei azken memoria bat eskatu ahal izango die; horretan, egindako irakasle-praktika autoebaluatuko eta izandako zailtasunak eta jasotako laguntzak baloratuko dituzte.

3.– Kalifikazio Batzordeak izangaien azken ebaluazioa egingo du, irizpide hauen arabera:

a) Praktiketako funtzionarioaren jarduerari buruz zuzendariak, irakasle-tutoreak eta ikastetxeko ikuskariak egindako txostenak, ebazpen honen I. eta II. eranskinen arabera.

b) Izangaiaren azken memoria, Kalifikazio Batzordeak eskatuz gero.

c) I eta II Eranskinetan adierazitako adierazleekin edo praktikaldiaren araudian dauden baldintzekin erlazionatuta dagoen edozein beste dokumentazio osagarria.

d) Hala badagokio, Hezkuntza Ikuskaritzak praktiketako funtzionarioaren ikasgela bisitatzean egindako oharren emaitza, haren irakaskuntza-eginkizuna bete bitartean.

Egoki uste badute, Kalifikazio Batzordeak ikastetxeko Hezkuntza ikuskariari eskatu ahal izango dio izangaiaren praktiken garapenari buruzko txosten osagarri bat, Ebazpen honen I eta II eranskinetan azaltzen diren alderdietan oinarrituta. Eskaera berariaz egingo da eta ezarritako prozeduraren arabera, baldin eta zuzendariaren, irakasle-tutorearen edo ikuskariaren txostenak aipatutako eranskinetan ezarritako adierazleren batean ezezko edo gutxiegiako balorazioak baditu.

Edozein kidegotako praktikako funtzionarioen kalifikazioa «Ez gai» izango da izangaia nahiko-tasun-mailetara heltzen ez bada dagozkion eranskinetan ezarritako adierazle guzti-guztietan.

4.– Emandako txostenak kontuan hartuta, kalifikazio Batzordeak izangaiaren azken ebaluazioa egingo du eta Langileak Kudeatzeko zuzendariari helaraziko dio praktiketako funtzionarioen zerrenda, dagokion kalifikazioekin.

5.– Praktikaldien kalifikazioa «gai» edo «ez gai» izango da. «Ez gai» kalifikazioa eman zaien praktiketako funtzionarioek, Langileak Kudeatzeko zuzendariak aldeztu aurretik jakinarazi ondoren, bost eguneko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, alegazioak jarri ahal izango dizkiote kalifikazio horri, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 76. artikuluan xedatutakoaren arabera. Epe hori pasa ondoren, Langileak Kudeatzeko zuzendariak emango du ebazpena eta dagokion Kalifikazio Batzordeari eta interesatuari bidaliko zaie.

Bigarrenena.– Kalifikazio Batzordeak hilabeteko epean eratu beharko dira, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Kalifikazio Batzordeek osatzeko, kide guztiek egon beharko dute, Langileak Kudeatzeko zuzendariak baloratu beharko dituen zirkunstantzia berezirik gertatu ezean. Batzordea osatzeko ekitaldiaren akta egingo da eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari bidaliko zaio.

Hirugarrena.– Kalifikazio Batzordeek «gai» edo «ez gai» kalifikazioen behin betiko akta idatzi ahal izateko, batzordeburuak eta gainontzeko batzordekideen erdiak egon beharko dute. Edonola ere, batzordea eratu ondoren ezinbestekak bultzaturik edo ustekabeko arrazoiengatik batzordekideetako batzuk edo batzordeburua ezin badira agertu, Langileak Kudeatzeko zuzendariari eman beharko zaio horren berri eta behar dena erabakiko du.

Laugarrena.– Praktikak, oro har, amaitutzat joko dira eta ebaluatu egin ahal izango dira irakaskuntza zuzeneko egiazko sei hilabeteko zerbitzuak egin eta gero, gutxienez 2/3ko eguneko lanaldiarekin.

Salbuespenetzko kasuetan, praktiketako funtzionarioa aldi baterako ezintasun-egoeran, amatasun-bajan edo praktikaldiaren ohiko garapena eragozten dion ezinbesteko beste kasu batean badago (ezusteko eta saihetsezineko salbuespenetzko egoera), eta Kalifikazio Batzordeak baloratu eta onartu ondoren, praktikaldiak gutxienez hiru hilabete eta egun bat izan beharko du jarraian (horietatik 60, gutxienez, zuzeneko irakaskuntzakoa izango da ikasgelan edo beste hezkuntza-tes-tuinguru batean). Salbuespenetzko kasu horietan, gutxienez 2/3koa izango da eguneko lanaldia. Kasu horietan, lehentasuna emango zaio ikuskaritzari bere irakaskuntza-jardueraren garapenaren saioen batera joateari.

Kalifikazio Batzordeak egingo duen azken aktan ebaluazioa egin behar zaien praktiketako irakasle guztiak eta beren kalifikazioak agertuko dira. Langileak Kudeatzeko zuzendariari bidaliko zaizkio praktikak ebaluatzeko akta horiek.

«Ez gai» kontsideratzen den izangaiak praktiketako funtzionarioan hasi beharko du «Ez gai» izan den hurrengo ikasturtean; praktikaldia behin bakarrik errepikatuko da. Hurrengo urtean deituko balitz kidego eta espezialitate bererako hautaketa-prozedura, sartu den promozio horretan, euren espezialitatean hautatutako azken izangaiaren hurrengo tokia beteko du zerrendan.

Lanean hasten ez denak edo bigarren bez «Ez gai» kalifikazioa jasotzen dutenak karrerako funtzionarioaren izendapena jasotzeko eskubide guztiak galduko ditu. Arrazoidun ebazpen baten bidez, deialdia egin duen agintariak eskubide horien galera deklaratuko du.

Bosgarrena.– Praktikaldian, praktiketako funtzionarioei azterketa medikoak egiteko eskatu ahal izango du Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak, Kalifikazio Batzordearen proposamenez, irakaskuntzan behar bezala jarduteko baldintza fisiko eta psikikoak betetzen dituztela egiaztatzeko asmoz.

Seigarrena.– Langileak Kudeatzeko zuzendariari eskuduntzak ematen zaizkio, praktikaldi hau aurrera eramateko behar diren argibideak emateko.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 23a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,  
PATXI XABIER AIZPURUA TELLERIA.

## I. ERANSKINA

Zuzendariaren txostenerako adierazleak

*(Ikastetxeko kudeaketan parte-hartzea)*

- 1.– Ikastetxeko zuzendaritza-taldean laguntzea ikastetxeak behar bezala funtzionatzeko eta bere hezkuntza-jardueretan.
- 2.– Hezkuntza-jardueren diseinuan eta egitean laguntzea, ikastetxeko kide bakarreko organoen proposamenez.
- 3.– Kide anitzeko organoen hitzarmenak betetzea eta parte-hartzea.
- 4.– Sail, ziklo eta talde-ikasgeletako taldearen akordioak betetzea, ikasleen ikaskuntzako ebaluazio eta kalifikazioari dagozkionak bereziki.
- 5.– Irakasleen Klaustroan eta hezkuntza komunitatean integratzea.
- 6.– Ikastetxearen hobekuntzan kolaborazio- eta ekarpen-jarrera izatea.
- 7.– Ikastetxeko eskola- eta hezkuntza-ekintzetan parte hartzea.
- 8.– Eskolaz kanpoko eta osagarriak diren hezkuntza- eta irakaskuntza-ekintzak burutzeko zereginetan parte hartzea, OOGn onartuak eta Ikastetxeko Planean islatuak.

*(Talde-lanerako kolaborazio- eta ahalmen-jarrera)*

- 9.– Talde-lanerako ahalmena.
- 10.– Ikasteko, praktika onak partekatzeko, errespetutik baliogarriak diren proposamenak egiteko eta lankideen lanaren baloraziorako jarrera irekia.
- 11.– Irakasleen batzarretan eta lan-taldeetan era aktiboan parte-hartzea eta laguntzea.

*(Eskola-komunitatearekin harremana)*

- 12.– Bizikidetzaren positiborako eta ikaskuntzako giro onerako ekarpena.
- 13.– Ikasle eta familiekin harremanak eta komunikazioa izateko gaitasuna.

*(Eginkizunak, eginbeharrak eta betebeharrak betetzea)*

- 14.– Ikastetxean egoteko ordutegi pertsonala betetzea.
- 15.– Talde-ikasgelan emateko ikasgaien ordutegiak betetzea.
- 16.– Ikastetxeak jarritako edozein kargu edo erantzukizun behar bezala betetzea.
- 17.– Irakaskuntza-funtzioak berekin dakartzan alderdi guztiak behar bezala betetzea.

## II. ERANSKINA

Tutorearen txostenerako adierazleak

*(Ikastetxearen kudeaketan parte hartzea)*

- 1.– Ikastetxearen antolakuntza- eta kudeaketa-dokumentuak ezagutzea.
- 2.– Irakasle-taldearen partaidea den aldetik, lan-batzarretan, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuaren plangintzan eta ikasleen hezkuntza-prozesuan era aktiboan koordinatzea eta laguntzea.

*(Ikaslearen gela/motibazioaren gela/metodologia/giroaren planifikazioa eta kudeaketa)*

- 3.– Hezkuntza eta irakaskuntza ekintzetako plangintza eta programazioa talde-ikasgelan garatzeko xedez, indarreko curriculum eta Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuari jarraikiz.
- 4.– Talde-ikasgelaren programazioa sailean edo zikloan ezarritako irizpideei egokitzea, etaparen curriculum-proiektuaren arabera, ondorengo gaitetan:
  - Estrategia metodologiko egokiak aplikatzea.
  - Hezkuntza-etapari edo espezialitateari egokitutako ebaluazio-prozedurak aplikatzea.
  - Ikasleen aniztasuna aintzat hartzea, hezkuntza-premia bereziak dituenak batez ere.
  - Espezialitatearen programa, bidezkoa bada.
- 5.– Ikasleen testuinguruari eta adinari eta ezaugarriari egokitzea.
- 6.– Ikasleen aniztasunaren gaia talde-ikasgelan tratatzea.
- 7.– Gelako antolakuntza inklusiboa.
- 8.– Praktika metodologiko erangikorrek eta ikasleen ezaugarrietara egokitzea.
- 9.– Ikasleak ikaskuntzarako motibatzea.
- 10.– Taldean-ikasgelan sortzen diren gatazkak konpontzeko eta ikasleen eskubideak bermatzeko trebetasunak, hezkuntza-arreta egokia eta haien segurtasun fisiko eta emozionala barne.

*(Ebaluazioa, ikaslearen jarraipena eta tutoretza)*

- 11.– Prestakuntzazko eta bildumazko ebaluazioaren diseinua eta aplikazioa programatutako irakatsi eta ikasteko prozesuetan.
  - Gutxieneko ikaskuntzak, espero den gaitasun-garapenaren maila eta definitutako ebaluazio-, kalifikazio- eta sustapen-irizpideak identifikatzen ditu.
  - Tresnak eta ebaluazio-prozedurak erabiltzea, ikasleen ebaluazio objektiboa egiteko eskubidea ziurtatzeko.
  - Talde-ikasgelako ikasleek lortutako emaitzak eta ikasleek banan-banan lortutako ikaskuntza maila aztertzea.
  - Ikasleek egiten duten aurrerapena jarraitzea.
  - Ikasleei eta familiei horren berri ematea (eta behar denean, talde-ikasgelako tutoreari).
  - Irakatsi eta ikasteko prozesuaren azterketa, hobetzeko proposamenak eta horien ezarpena: aldaketak metodologian; ekintzak egokitzea; materialak eta baliabide didaktikoak aukeratzea; ebaluazio- eta kalifikazio-irizpideak adostea;...
- 12.– Tutore-lana eta egotzitako funtzioak betetzea.

*(Eskola-komunitatearekin harremana)*

- 13.– Ikaslearen irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobetzeko familiekin koordinatzea.

*(Praktika, autoebaluazioa eta heziketari buruzko gogoetak)*

- 14.– Etengabeko hobekuntzarako irakaskuntzari buruzko gogoetak.
- 15.– Ikaskuntzarako eta berrikuntzarako jarrera irekia.
- 16.– Prestakuntza-prozeduretan parte hartzea eta laguntzea.